



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Enbates Jhonsonen bezeroaren perfila azalduko dugu. Gure ustez edozein pertsona erosi dezake gure produktua baina informazioa hainbat orrialdeetan bilatu ondoren perfil egokia planteatuko dugu. Gure bezeroaren adina 16 eta 60 urte bitartekoa da. Gure produktua erosteko berdin dio ze motatako generokoa garen. Gure ustez, emakumezkoentzat zuzenduta dago bereziki. Gizonezkoak egon arren, hauek dira bere elikaduraz gehien arduratzen direnak. Normalean, kanpoan ikasi eta kanpoan lan egiten duten pertsonentzat zuzenduta dago baita etxeko janaria eraman nahi duten pertsonentzat.

Informazio ezberdina bilatu eta gero azterketa baten emaitzak jarriko ditugu, 10 espainiarretik 6k etxetik kanpo jaten du, bereziki hiri handietan. Janariari begira, % 58k menua jaten du, % 40k etxeko janaria, eta % 4k soilik nahieran jaten du. Menua jaten dutenak, beren lantokitik gertu dauden jatetxeak aukeratzen dituzte, etxeko janaria duten menu ekonomikoak dituztenak, eta horregatik jaitsi egiten da fast food deritzona aukeratzen duen ehunekoak.

Gure produktua erosiz gero hainbat abantail izango ditugu. Lehenik, lanean denbora gutxi baldin badugu bazkaltzeko gure produktuari esker janaria prestatuta edukiko dugu eta duen mekanismoari esker beroa

mantendu ahalko dugu. Tuperra lanera eramaten dugunez, denbora eta dirua aurreztuko dugu. Baita lana egiten ari zaren bitartean lasai jateko aukera izango dugu.

Baina bakarrik ez dugu egoera horretarako erabiliko. Etxetik kanpo egiten ditugun planentzako ere baliagarria da, adibidez, hondartzara joaterakoan, mendira, ibiltzera.... Oso erosoa denez, ez gara arduratu behar ea janaria prestatuta edo beroa dagoen.